

KANALAK

Sare sozialak duten garrantzia eta arrakasta aprobetxatuz, online ipiniko dugu gure denda propioa, bertan informazio guztia dugulako eskuragarri eta mundu osora zabaltzeko eta iristeko modu eraginkorra baita. Horretarako, sortu dugun webgunearen eta sare sozialen bitartez zabalduko ditugu mezu naiz nobedade guztiak. Gure ustez bezeroentzat errazagoa eta erosoagoa izango da internetez egitea aurrez-aurre egitea baino, izan ere, webgunearen bidez dituzten zalantza guztiak argitzeko aukera izango dute eta horrez gain, telefono zenbakiz ere gurekin kontaktuan jar daitezke. Beraz, erabiliko dugun kanal mota propioa dela esan dezakegu, zehazki kanal zuzena.

Sortu dugun webgunearen bidez gure produktuak salduko ditugu eta bezeroek bertan eskaintzen ditugun produktuak ikusi, partekatu eta eros dezakete, gure bezeroek ere, eduki dezaketen zalantzen erantzunak bila ditzakete gure web orrian, orrialde oso bat dedikatu baitiogu bezeroek dituzten zalantzak eta galderak argitzeko. Horrez gain, erosleak gurekin harremanetan jartzeko beharra izanez gero, gure enpresaren partaideen datuak edukiko dituzte haien zalantzak kontsultatzeko.

Behin, gure orrialdean erregistratzean, gure enpresak eskainiko dituzten nobedade guztien berriak, webgunean zabalduko ditugu baita helbide elektronikoaren bidez: gure bezero guztiei gure berriak iritsiko zaizkiela ziurtatzeko eta zerbitzu pertsonalago bat eskaintzeko. Izan ere, denok irekitzen dugu gure mezu elektronikoa egunean behin baino gehiagotan!

Hizkuntzarekin zer? Gu beste enpresak baino arreta gehiago jarri behar diogu kontu honi, behien eta berriz esan dugun bezala, gure helburuetako bat gure proiektua ahal den leku guztietara zabaltzea delako. Horretarako, gure webgunera sartzean hainbat hizkuntzatan eskuragarri dagoela berehala konturatuko zarete: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez esaterako. Modu horretan, Argentinan bizi direnentzako ulerterrazagoa izango da eta aldi berean beste herrietako bezeroentzat ere. Hori gutxi izango balitz, gurekin komunikatzeko garaian ere hiru hizkuntza desberdin horietan hitz egin dezakete, talde honetako lau kideok ondo hitz egiten baititugu hiru hizkuntza hauek.

Bestalde, bezeroak nahi duten produktuak erosi eta gero, eskatutako saskiak haien ailegatzeko Mensajería Low Cost enpresa erabiliko dugu. Hasiera batean, bitartekariak saihestea zen gure helburua, horretarako, gu geuk izango ginatke banatzaile lana egiten zutenak, hau dena, dirua aurrezteko batez ere. Baina, kontuan harturik Argentinako euskal etxeak direla gure bezero potentzialak,



ezinezkoa egingo zitzaigun gu izatea banatzaileak. Horregatik, enpresa batekin kontaktuan jarri gara eta hauek banatuko dituzte gure produktuak Argentinara edota Euskal Herritik kanpo dauden bezeroei.

Hasierako ideari eutsiz, Euskal Herriko bezeroak izanez gero, gu geu izango gara saskiak entregatuko ditugunak eskura, furgoneta baten laguntzaz. Alde batetik, lehen esan dugun bezala, bitartekariak saihesteko, hau da, dirua aurrezteko, ondoren enpresa exijituko digun beste hainbat gastu batzuetan inbertitzeko.

Gure helburu nagusia da; bezeroak gure zerbitzuarekin gustura gelditzea eta guran konfiantza jartzen dutenean gure produktuen kalitateak haiei huts ez egitea. Horregatik, gure eroslearentzat erosotasun guztiak bilatzea da gure lan garrantzitsuena. Hau dela eta, gure webgunean salduko ditugun produktuak oso modu erraz batean erosi ahal izango dute; alde batetik, gure orrialdearen diseinua oso ongi planifikatuta baitago eroslea ongi uler dezan dena, bestetik, informazioa hizkuntza bat baino gehiagotan aurki dezaketelako. Eskatutako produktuak ere, oso era erosoan iritsiko zaizkie bezeroei, berain helbideetara helduko zaie. Beraz gure produktua erosteko eta paketea ailegatzeko arazorik ez lukete edukiko.

Gure enpresarekin zailtasunik ez!

